



**EUSKAL ESKOLA
NAZIONALARI BURUZKO
ZENBAIT GOGOETA**



DOKUMENTAZIO
ZENTROA
TX 10122

*estabaidazako
materiala*

1989eko. APIRILA

AURKIBIDEA

0. SARRERA

1. LABen HELBURUA: EUSKAL ESKOLA NAZIONALA

- 1.1. LAB KAS-eko partaide
- 1.2. Euskal Eskola Nazionalaren ezaugarriak
- 1.3. E.E.N. Euskal Instituzioen eskuetan
- 1.4. Marko berriaren beharra

2. E.E.N.ren INGURUAN, EGOERA SOZIOPOLITIKA

2.1. Estatuan, PSOEk markatzen duen hezkuntz politika

1. Hezkuntz sistema bera
2. PSOEn erreformak
3. Errekurtso ekonomikoak

2.2. Hego Euskal Herrian

1. Marko juridiko politikoa
2. PSOEn Hezkuntz Politika Hego Euskal Herrian
3. Gobernu bien jarrera
4. Administrazioaren Euskalduntze prozesuaren aurkako jarrera

2.3. Jaiotze-tasaren beherakada.

3. EKINTZA SINDIKALA 87tik HONA

3.1. Komenioak eta burruka sektorialak

1. Irakaskuntza transferituan
2. Irakaskuntza estatalean
3. Nafarroako ikastoletan
4. Baskongadetako ikastoletan

3.2. Eskola Publiko berria Baskongadetan

1. PSOEk eta Federazioen arteko negoziaketak
2. Eztabaida soziala
3. Lege-proiektuaren aurkezpena
4. Beste erakundeen jarrera

3.3. Nafarroan, PSOEn Vasuenceren legearen ondorioak

1. Ikastola txikiak desagertarazi nahi
2. Ereduen finkapena
3. Lurralde euskaldunetan ematen ari den egoera

3.4. Eskualdeetan ikastetxeen arteko konpetibidatea

4. ONDORIO GISA

- 4.1. Ekintza sindikala, prozesu dialektikoa
- 4.2. Prozesuak, helburu argi izanez
- 4.3. Herri mugimenduan oinarrituz
- 4.4. KASen Alternatibaren negoziaketetan, indarrak bildu.

SARRERA

Material hau ez da bukaturiko lana, eztabaidarako gidoi bezala planteiatzen dizuegu; zuen eritzi, balorazio eta aportazioekin osatzeko asmoarekin egina dago.

. LABek irakaskuntzan oso denbora gutxi daramala kontutan harturik, urte bi hauetan egin ditugun planteiaketa teorikoez, zein eskola mota definitu eta defendatzen dugun (Euskal Eskola Nazionala), eta helburu hori lortzeko planteiatu dugun ekintza sindikalaz erreflexionatzeko beharra ikusi dugu.

. Euskal Eskola Nazional proiektuaren ikuspuntu honetatik, azken urte hauetan Baskongadetan sortu den sare bien arteko baterakuntza prozesua eta Eskola Publikoari buruzko eztabaida aztergai garrantzitsu izango ditugu.

. Era berean, LABen funtsezko eztabaida iruditzen zaigu markatutako helburu taktikoen -Euskal Eskola Nazionalaren- eta eguneroko lanean aurrera eraman dugun ekintza sindikalaren arteko lotura zuzena izan den ala ez jakitea eta ea hartutako erabakiak aurrerapausuak izan diren ala ez.

. LABek duen planteiaketa, hau da, Euskal Eskola Nazionalaren lorpena, klase eta nazio proiektuarekin baldintzaturik aurkitzen da. Beraz, LABen lana KAS Alternatibaren inguruan indarrak biltzea da: Euskal Nazio proiektua aurrera eramateko derrigorrezko baldintza dugulako eta proiektu politikoarekin batera Euskal Eskola Nazionala lortzea ziurtatuko lukeen nahitaezko baldintza.

. Egungo kointuran, negoziazio politikoak dira bide bakarra zeinek gure proiektua gauzatzeko bermatuko duen. Hildo honetatik, negoziazio prozesuak behar dituen baldintzak sortzeko borrokatu behar dugu LABen ere.

OHARRA

- Eztabaidarako materialea:
- LABeko 2. monografikoa, 88ko martxoan aurkeztutakoa "Egungo egoeran, EENruntz Baskongadetan eman behar diren urratsak"
 - "Hausnartzen" aldizkaria, 88ko ekainean HBk aterata "Eskola Nazionaleruntz", "Eskola Publiko eta Euskalduna"..
 - LABeko "Ekintza Sindikala" artikulua, 88ko azaroan eginda

I LABEN HELBURUA: EUSKAL ESKOLA NAZIONALA

1.1. LAB KAS-eko partaide

LAB, KAS-eko partaide bezala, Hezkuntzan ere, aurrera eraman beharreko lan sindikala bat dator KAS Alternatibaren helburu politikoeekin.

1.2. Euskal Eskola Nazionalaren ezaugarriak

LABek burukatu eta lortu nahi duen Eskola Nazionala, Euskal Herri osoan hedatua, honelakoa da: euskalduna, publikoa, herritarra, dohaina, demokratikoa, zientifikoa, aktiboa, ez-sexista eta langile klasearen zerbitzuan.

1.3. EEN Euskal Erakundeen eskuetan

Euskal Eskola Nazionala, zeinen antolakuntza, programak, plangintza eta langileen eraketa egiteko boterea duten Euskal Erakunde eta Gobernuaren eskuetan izango bait dira.

Hasieran, Hego Euskal Herrian hedatua eta, ondoren, Euskal Herri osoan zabaldua.

1.4. Marko berriaren beharra

Euskal Eskola Nazionala lortzeko ezinbestekoa zaigu Hego Euskal Herri osora hedatzea eta gure Herriaren berrakuntzarako funtsezko tresnak eskainiko dizkigun marko juridiko-politikoa lortzea.

Guzti hau, KAS Alternatibaren inguruan ematen ari den negoziatze politikoak ekarriko du

2. EENren inguruan, EGOERA SOZIOPOLITIKOA

2.1. Estatuan PSOEek markatzen duen hezkuntz politika

1. Hezkuntz sistema

Gobernu espainiarrak Hezkuntz sistema erabiltzen du espainiar nazio proiektua bultzatzeko. Erabilera honek, beste zenbait aspekturekin batera, Hezkuntz sistema homogeneoa eskatzen du, hots, sistemaren egituraketa, lege bereziak, ikasketa planak, langilegoaren eraketa eta lan baldintzak..., Funtzio Publikoaren lege, LOSE, LODE, LORS, LOLS izeneko eta abarren bidez Hezkuntz sistemaren ardatz nagusiak markatzen dira Estatu osorako.

2. PSOEren Erreformak

Erreforma guzti horiekin PSOE espainiar Estatuaren Hezkuntz sistema EEEkoarekin homologatzen ahalegintzen ari da, sistema aldaketa eginez aldaketa sakonik eta aurrerakoirik egin gabe.

3. Errekurtso ekonomikoak

Zerbitzu publikoen pribatizazio joera dugu politika neoliberalaren ondorio latza. Hezkuntza arloan, aurrekontuak gehitzeaz gain berauen banaketa ere aztertu beharra dugu:

- . Aurrekontuak gero eta handiagoak izan arren, 1991an Europako parekoak izango omen dira (egun, PIB delakoaren %3,6 eta Europako batz bestekoa %6a), horrek ez du esan nahi Hezkuntzako beharrek eskatzen duten beste direnik. Honen ondorio argia Hezkuntz langileen birmoldaketa eta lan baldintzen txarragotzea dira.

- . Bestaldetik, kontzertuen politika bultzatzeak krisian zegoen sare pribatua "saneatzea" ekarri du.

2.2. Hego Euskal Herrian

1. Marko juridiko politikoa

Hego Euskal Herriari dagokionez, politikoki banaturiko Nafarroako eta Baskongadetako Gobernuak gestio ahalmena besterik ez dute.

Lurralde banaketak berarekin dakar banaketa juridikoa (legeak, hitzarmenak...) eta Komunitate Autonomo bakoitzean egituraketa bereziak egitea (negoiatze marko desberdinak, Baskongadetako Batzorde Eskolarra edo Junta Superior de Educación delakoa Nafarroan...)

Gobernu biren erabakia desberdina da ere bai transferentzien aurrean: transferentziak bai Baskongadetan baina ez Nafarroan; ahalmenik eza kasu bietan.

2. PSOEren Hezkuntz Politika Hego Euskal Herrian

PSOEek Hego Euskal Herrian eramaten duen Hezkuntz Politika Estatu mailan eramaten duen politikaren jarraipen hutsa besterik ez da, hemen dauden berezitasunak desegiteko ahaleginak egiten dituen bitartean.

Ikastolen mugimendua, euskararen aldeko mugimendua, oztopo bihurtzen da PSOEren politikaren aurrean eta mugimendu hau desegitea da PSOErentzako lehentasunezko gaia. Nafarroan Gobernutik eta Baskongadetan PNVrekin egindako paktua erabiliz, normalizazioa = espainolizazioa da PSOEren helburua.

3. Gobernu biren jarrera

Aipaturiko egoeraren aurrean, 1987tik hona, PSOEek bai Nafarroan, Gobernuaren jarreragatik, baita Baskongadetan ere, Gobernuaren paktuaren ondorioz, jokugune berria zabaldu du Hezkuntza mailan: sare bakarrerantzako bidea Baskongadetan eta ikastolen etorkizunaren "negoziaketa" Nafarroan.

4. Administrazioaren euskalduntze prozesuaren aurkako jarrera

- Euskararen egoera minorizatua nabaria izan arren, Gobernu biak erderaren defentsan agertzen dira.

Euskara berreskuratzeko planifikazio linguistikorik ezak erdararen nagusitasuna mantentzea dakar. Euskararen "aldeko" legeek eta arautegiek euskara egungo egoeran mantentzea ere ez dute ziurtatzen, minimoak betetzen ez dituztelako eta beraiek markatzen dutena betetzen ez dutelako.

Azpiramarkatzekoak dira Administrazioaren jarrera erasogarri honetan ereduaren arautegia eta garapena (A ereduaren elebiduna ote?) edota "Ley del Vascuence" delakoa eta bere aplikazioa (hainbat zonalderi euskalduntzeko aukera ukatuz).

- Euskara Euskal Herriko hizkuntza nazionala, beraz ofiziala, izateko borondate politiko ezak uko egiten dio euskarari lurraldetasunaren definizioa, zeinetan eskubide kolektiboek lehentasuna izango luketen eskubide indibidualen aurrean.
- Bestaldetik, egoera linguistikoa konplexotasuna (zona euskaldun / erdaldunak, arazo pedagogikoak, motibazioak, hizkuntza kontzientziarik eza...) arazo objektibo bihurtzen da euskalduntze prozesua planifikatzekoan
- Errekurtso mailan, egoera normalizatu batetan edozein nazio erabiltzen duen aurrekontua ezin da konparatu nazio bezala zapaldua dagoenak eskatzen duenarekin, kostoak askoz altuagoak bait dira eta kasu honetan hizkuntza berreskuratzeko prozesua jokuan dagoelako.

2.3. Jaiotze-tasaren beherakada

Ume kopuruen beherakadak areagotu egin du Hezkuntza sistemaren egoera larria.

Egun, Eskolaurrean eta OHOn ematen den arazoa bada ere, sistemaren egituraketan eragin zuzena du eta hurrengo urteei begira langileen birmoldaketa derrigorrez ekarriko du.

Birmoldaketa horrek ez luke zergatik irakasle-kopurua jeitsi beharko, giza-errekurtsoen erabilpen egokiagoa ziurtatu beharko luke, baina ez du ematen hortik joango denik Administrazioaren jarrera, oraingo erizpide ekonomizistekin jarraitzen badu.

3. EKINTZA SINDIKALA 1987tik HONA

3.1. KOMENIOAK ETA BURRUKA SEKTORIALAK

Egin ditugun plataformetan eta bultzatutako mobilizapenetan honetan saiatu gara: kalitatezko irakaskuntza euskalduna aurrera eramateko beharrezkoak diren baldintzak lortzen, sare arteko lan baldintza ezberdinak kontutan hartuz.

1. Irakaskuntza transferituan

Iazko ikasturtean irakasleek komenioaaren negoziaketa inguruan greba eta mobilizazio kanpaina gogorra eraman zuten.

Lakuako Administrazioak negoziatzeko zituen muga estuak agerian geratu ziren, Madrilgo negoziaketek Baskongadetakoak erabat baldintzatzen bait zituzten.

Mobilizapen eta negoziazio prozesuaren ondorioz, Administrazioak behar zuen akordioa sinatzen da, PSOEK eta CCOOk bultzaturik.

Une hartan, Administrazioaren sektore guztiak greba eta mobilizapenetan murgildurik zeuden, Irakaskuntza transferituko grebak eta konfluentziarako Tegea kontsensuatzeko zeuden arazoak egoera larriagotzen zutelarik.

Egoera honetan sinatzen da Baskongadetan geroago Estatu mailan sinatuko den "paktu eskolarra", PSOEk bere Erreforma garatzeko behar zuen pake eskolarra lortuz.

Baskongadetako akordioa sinatu zuten sindikatuak, UGT, CCOO eta ELA, Administrazioaren gestioa legitimatzeko eta Hezkuntzaren berregituraketan parte hartzeko prest agertu dira (UGT eta CCOO Estatu mailan ere funtzio berdina betetzen ari dira).

Akordio honek argi frogatu du bere ezina irakaskuntzan dauden arazoak bideratzeko (kurtsu hasiera, euskalduntzearen oztopatze sistematikoa...) eta, era berean, irakaskuntzan aurtengo negoziaketak moztu egin ditu.

Honekin lotuta ere, sinatu ez duten sindikatuak (STEE eta LAB) guztiz bazterturik geratu dira, bai akordioaren garapen komisioetatik baita Administrazioak aurrera daraman planifikazio lan guztietatik ere.

2. Irakaskuntza Estatalean

. Hauteskundeetan parte hartu genuen.

. 88ko greba estatala ez genuen bultzatu, zentru zentralista batekin konbokatua zegoelako. Dena den, kritikoki parte hartu genuen Nafarroako plataforman gure erreibindikapenak sartzea bultzatuz:

- kontratatu eta interioentzako estabilitatea eta % 100ko soldata
- irakaslearen euskalduntzeko plangintza egokia
- "Carrera Docente" delakoari ezetza borobila
- Nafarroako UPN eta PSOEen artean egindako "paktu eskolarraren" salaketa
- negoziatzeko eskubidea lortzea eta honekin Nafarroan mahai negoziatzailea osatzea

. Batzorde Pertsonala: Madrilen engoziatzen ari diren sindikatuen maltzurkeriak saiatu

. Gaztelaniaren inposaketaren aurkako kanpaina

3. Nafarroako Ikastoletan

. Delegatu gehienak LABekoak dira

. Komenioa: lehendabiziko, Baskongadetakoekin batera komenio bat negoziatzen saiatu ginen

- Nafarroako berezitasunak ikusirik, bertan negoziaketa egiteko pausuak ematen hasi
 - 88ko Baskongadeta komenioan oinarrituz, puntuz puntu ikusi zen, gure plataforman aurkeztutako puntu inportanteenak eztabaidagai garatuz, gaur egun "impasse" batean aurkitzen delarik.
- Federazioaren jokabidea komenio honen aurrean guztiz ezkorra izan da. Ez du biderik jarri eta beren saltsa aitzakitzat harturik prozesu guztia oztopatu du.
- LABen ekintza ikastolekiko erasoen aurka zentratu da:
 - alde batetik, desagertzeko zorian dauden ikastolak mantentzearen alde borroka egin du
 - bestaldetik, irakaslegoaren lanpostuen defentsan ari

4. Baskongadetako Ikastoletan

88ko komenioa:

Konfluentzi-legearen eztabaida ematen zen une berean egin ziren negoziaketak

Banaketa instituzionalak duen eragina eta berori gairiditzeko, ELA eta Federazioek inolako asmorik ez dutela garbi geratu zen berriro Baskongadetako komenioa negoziatzean.

Ordutegi-soldata dela eta batez ere, eskola eta ikastolen arteko desberdintasunak finkatzen saiatu ziren Federazioak eta ELA. Batzuk kalitatearen izenean, besteak diru gehiago eskatzeko aitzaki bezala erabiliaz.

LABek helburu berdinak bultzatzen dituenek eskola eta ikastoletatik, desberdintasunak kontutan izan arren, plataforman bata bestearekiko hurbiltzea kontutan izanik jokatu genuen eta paktua sinatzera ukatu ginen, beste arrazoen artean ordutegi desberdintasuna finkatzearen soldataz saritzea onartu bait zuten.

LABek, aldiz, etorkizunerako bidea sendotzearen, ikastolen arteko desberdintasunak berdintzea eta Administrazio orokorreko lengileekin parekatzea exijitu zituen, iraunkortasuna eta kalitatezko irakaskuntzaren baldintzekin batera plataformaren ardatz nagusi bezala.

Konbergentzia deituriko prozesuan izandako jarrera:

- Negoziaketak globalak bultzatzea Euskal Eskoia Nazionaleruntz bideratzeko, langileen eskubideak defendatuz jokatu dugu.
- Abenduak 18ko akordioan langile guztien lanpostuak ziurtatuko zirela zioen eraskina sartzea lortu genuen.
- PSOEK, zailtasunak zituenean, langileekin jokatzearren saiatu zen, lanpostuak ziurtatzea aginduz.
- LABek plataforma eginaz, asanblada, eztabaida eta mobilizapenak bultzatuz lortu du PSOEren jokoa agerian uztea eta irakaskuntzan aldaketa kualitatiboak egiteko duen borondate eza nabarmen geratzea.
- Mobilizapenekin lortu da, alde batetik ikastoletako langileetat Funtzio Publikoaren legean aipamena egitea, eskatutako baldintzak gauzatzea, oraindik hurraren badago ere, eta, bestetik, ikastoletan eta komunikabideetan konbergentziaren inguruko eztabaida bizia, PSOEren integrazio hutsezko bidea zalantzan jarritz.

3.2. ESKOLA PUBLIKO BERRI BAT BASKONGADETAN

1. PSOEek eta Federazioen arteko negoziaketak

Baskongadetan PNV eta PSOEn arteko paktoaren ondorioz, PSOEek markatzen du dinamika. "Normalizazio politikoa" lortzeko beste pausu bat bezala batez ere.

- . 1987.eko abenduaren 18an akordio politikoa sinatzen dute ikastoletako Federazioek eta Hezkuntza Sailak. Eginiko akordioak aurrerapausatzat jo genuen (bai zenbait egoera konpontzeko baita Eskola Nazionaleruntz urrats bat izateko ere) baldin eta aurrerantzean negoziaketa globalak egingo baziren: euskalduntzea, langileen eskubideak, gestioingintza...
- . 1988.eko ekainaren 29an Konfluentzi legea onartzean, prozesua nabarmenki desbideratu egin zen. Federazioen helburu bakarra dirua besterik ez delarik eta PSOEna egungo sare transferituan integratzea. Ez dugu lortu prozesua bure baldintzetara bideratzea.
- . PSOEek kanpora begira negoziatzaile eta partaidetzaren bultzatzailearen itxura saldu du, baina praktikan aldaketa kualitatiboak suposa lezakeen edozein plataforma negoziatzea ukatu da langileekin. Berak markatu nahi du egin behar den eskola mota, nola edo hala sare bakar bat egitea **helburu nagusitzat** ipini duten zenbait talderen laguntzarekin noski.
- . Federazioek PSOEn dinamika onartzetik Eskola Publiko Berriaren zenbait ezaugarri ikastoletatik baldintzatzeko zituzten aukerak galdu dituzte. Legean lortuko direlakoan? Diru publikoz pribatu egoera luzatzekotan boluntarismo eta gestio pribatuaren araberan jarraituko dute irakaskuntzarako baldintza egokiak eskeintzea beraz.

Ez dute helburu ideologiko argirik. Gutxi batzuk zuzendu duten prozesu honetan, aportazioak baztertu dituzte, langileen partaidetza boikoteatu dute praktikan, paternalismo izugarri langileen ordezkaritza ere beraiek eraman nahi izan dutelarik.

2. Eztabaida soziala

Eztabaida taldeak sortu ditu Hezkuntza Sailak 89.ko otsailean

LABen jarrera talde horien eraketa, helburuak, epeak eta eztabaidarako Gobernuen proiektu baten eza kontutan hartuta, parte ez hartzearena izan da:

- . Gure helburua den Euskal Eskola Nazionaean finkatu ezin direlako ez baldintzak ezta ardatzak ere. Are gutxiago helburua kontsensu denean eta ez Herri honen eskubideei erantzuteko bideak aurkitzea.
- . LABek, bai eskoletan bai ikastoletan, exijitutako negoziaketei Administrazioak uko eginaz, PSOEn itxura zaintzeko eginiko kanpaina besterik ez dela nabarmen agertzen da
- . Beraiek nahi duten eskola mota eguneroko inposaketekin, ikuskariak, irakasle erdaldunak D ereduetan, e.a., egiten dutelako, zein eratako borondatea duten erakutsiz.

3. Lege-proiektuaren aurkezpena

LABek lege hori ezin du onartu atzean duen markoa onartzen ez duelako eta Administrazioaren proiektua burutzeko egina dagoelako, hau da, Hezkuntz sistemaren "españolizazioa".

Lege proiektu hori Estatu mailan agertu diren lege eta dekretuen jarraipen hutsa izango da eta LABen ez dugu uste gure eskola proiekturako (EEN) balio izango duenik. Era berean, Legean proposatzen diren atalak ere oso eskasak dira.

LABen ustetan, lege horren helburua integrazioa bultzatzea eta ziurtatzea da, ikastolek erabaki bat hartu beharko dute (publiko ala pribatua izatea) mugimendu bezala desagertaraziz.

Integrazioa eta ez baterakuntza diogu transferituan inolako aldaketarik susmatzen ez delako.

Legea onartezina bada ere, bere kontestu juridiko-politiko eta bere helburuagatik, legea egiteko prozesuan LABen jarrera zein izango den eztabaidagai dugu. Geure helburuei eutsiz, ikastolentzako irtenbide egokia ziurtatu beharko dugu, bai orokorki baita langileen egoerari dagokiona ere.

Integrazio prozesua dela salatuz, etorkizunerako ikastolen eta langileen egoera negoziatu beharko da.

3.2.

4. Beste Erakundeen jarrera

. STEE

Egungo koordenada politikoekin baloraziorik egin gabe, planteiatzen dituzte helburuak. Horrela, defendatzen duten "publikotasun abstraktua" ez dator bat gure Herrian ematen den klase eta nazional enfrontamenduarekin.

Euskalduntasuna aipatzen badute ere, ikastolekiko zerikusia duen guztia errefusatu beharrak, B eredia sutsuki defendatzera eraman ditu pedagogismo itsu batez, egungo baldintzak ahaztuta.

Langileengan sortzen duten eraginagatik, enfrontamendu faltsutan erori gabe, guk defendatzen dugun eskola proiektura hurbil arazi behar duqu.

. CCOO

EEren interes politikoaren arabera jokatzeko du, bere helburuak gauzatzen saiatuz eta lan parlamentarioarekin lotuz.

Eskoletan, ikastolen eraginari aurre egiteko fronte zabal eta indartsua sortzeko ahalegin etengabea dihardute, horretarako gurasoen elkarteetan eragina sortzen saiatzen da.

Gobernuarekin batera, integrazioaren defendatzaile sutsuak, beraientzat Euskal Eskola Publikoa egungo Baskongadetako transferitua da eta horretara moldatu beharko liriateke ikastolak.

. ELA

Ez du planteiaketa orokor bat irakaskuntzarako eta bere jarrera korporatibista eta ekonomizistek eramaten dute eskoletan gauza bat eta ikastoletan beste bat defendatzera.

Eskola Publiko Legea egin ez denaren aitzakiaz, pribatizazio bidea defendatu du amorru biziz ikastoletan. "Politikan" sartu da zuzenean ELA ere beste arrazoinamenduek huts egin diotenean.

. Ikastolen Federazioak

Herri mugimenduak izan beharko liriatekeen hauek, gero eta gehiago goi mailan harturiko erabakien eramale bihurtu dira. Botere faktiko bezala jokatzeko dute, sarritan herritarren artean ikastolak eta euskarak duten entzute ona aprobeztatuz, beraien dinamika zuzentzea zaila gertatzen delarik eta barnean dirauten eritzi politiko ezberdinen gainetik jokatzeko abilitadeara erakutsi dute.

Bere jarrera ekonomizista, kontrolatzaile eta paternalistak sarritan oztupo bihurtzen dira Eskola Nazionalera bidean, eskolekiko enfrontamendu antzu sortuz. LABen ekintza sindikala eragozten dute bai Baskongadetan baita Nafarroan ere.

. Guraso Elkarteak

Indarrrik eta eraketarik ez duten taldeak dira oraingoz. Ez dute eskola proiektu zehatzik bultzatzen, gehienbat A ereduaren defendatzaileekin bat egiten dutelarik Baskongadetan eta Nafarroan.

Badirudi Estatuan egin dutenaren antzera hemen ere Gobernuak bultzada ofiziala eta dirua eskeiniko diela, "izena" behintzat izan dezaten, horrela, eragin sozialik ez duten arren besteen pareko interlokutore bihurtuz.

3.3. Nafarroan: Vasuencearen Legearen ondorioak

Nafarroan PSOEK Vasuencearen legea garatzeko aitzakitan ikastola txikiak desagertarazi nahi du. Lege honek tinko irauten duen bitartean zaila izango da Eskola Nazionalerako aurrera biek finkatzea.

1. Ikastola Txikiak desagertarazi nahi

Hiruerri ikastola desagertarazi dute. Ikastola honekin gertatu denak isladatzen du Nafarroako egoera. PSOEK deuseztu du 290 ikasleko ikastola umeak sakabanatuz, irakasleak kaleratuz, negoziaketarik gabe eskoletan sartuz. Alderdi batzuk laguntzaile finak izan dira: EA, Batzarre, eta Federazioa mutu geratu da. Batzuk publikotasunaren izenean, besteek gainontzeko ikastola kontzertatuentzako laguntzen truke, PSOEren morroi izan dira.

2. Ereduen finkapena

Vasuenceraen legearen garapena: Baskongadetatik kopiaturiko ereduak finkatzen ari dira eskola estataletan, ikastolei aurre egiteko sarritan. Ez dute beharreko titulaziorik exijitzen euskaraz irakasteko.

3. Lurralde euskaldunetan ematen ari den egoera

Lurralde euskaldunetan gatazkak areagotzen ari dira, eskola euskalduntzeko ahaleginetan dihardutenak eta ikastolaren artean.

3.4. Eskualdeetan ikastetxeen arteko konpetitibitatea

. Eskualdeetan edo herri nagusietan daukagun egoera guztiz lotuta dago bigarren puntuari esan dugunarekin: jaiotze-tasaren beherakada, ereduaren garapena...

. LABeko egitura nagusia lurraldekoa izan arren, irakaskuntzan eraman dugun praktika ia ia azpisektoriala izan da, eskualde gehienetan ezin izan dugu lortu irakaskuntza orokorrean lan egitea, kasu onenean koordinatzea izan da lortu dena.

. Baldintza hauekin, ezinezkoa egin zaigu beste langileekin eta beste sektoreekin batera Eskola Euskalduna eta Publikoak eskatuko luken koordinazio eta planifikazioa eratzea.

Salbuespenak egon badaude, horregatik interesgarria litzateke eman diren esperientziak eraskin bezala aurkeztea ihardunaldietan.

. Eskualde mailan agertu diren zenbait arazoan aurrean, gela/ikastetxe desagertu kasu, zaila da irtenbide tekniko hutsa eskeintzea, atzean dauden arazoi politikoak aztertu gabe.

. LABen betebeharra ez da planifikaziorik egitea, arazoa aztertu ondoren irtenbide egokirako erizpideak finkatzea baizik.

4. ONDORIO GISA

4.1. Ekintza sindikala planteiatzerakoan eta garatzerakoan sistemak zabaltzen dituen zirrikitoak erabili ditugu asmo bikoitzarekin:

- . aurrerapausuak ematea geure helbururantz, lorpen batzuk eginez
- . Administrazioaren kontraesanak azaltzea, zenbait jokaera salatuz

Sistemak ematen dituen posibilitateen erabilpen honek, bestaldetik, zera suposatzen digu:

- . Salatzen dugun markoa, nahitaez, erabiltzea, Baskongadak eta Nafarroaren arteko banaketa de facto onartzea
- . Administrazioa erreferentzia puntu ezartzen zaigu gure ekintza sindikala baldintzatuz
- . Aspektu bi hauen ondorioz, gure alternatiba (EEN) desideologizatu egiten da, helburu eta bitartekoen artean zenbait desegokitasun eta desoreka sortuz hainbat kasutan.

Gure ustez, LABen sindikalgintzak dialektika honetan jarraitu beharko du: helburu orokorrak tinko mantenduz, eguneroko burruka puntualetan eta egoera konkretuetan irtenbide egokiak bilatu beharko ditugu.

Bide zaila eta kontraesanaz beterik bada ere, indarrak batzeko prozesuan, garrantzitsua dugu maila konkretu hau: helburu orokorrak urrun ikusten dituztenek ere hurbilago ikusten dute praktika sindikal konkretua gureganatzeko unetan.

4.2. EEN helburutzat harturik, prozesua nola bideratu behar den aztergai nagusia dugu.

Prozesuan ematen diren une desberdinak eta horietan sortzen diren ekinbideak, baterakuntza bai ala ez edota sare biak mantentzea ala ez, sakonki aztertu behar ditugu baina helburua argi izanez eta ez hainbeste une puntual horietan irtenbide kointuralari begira.

4.3. Hildo honetatik, eta lehenengo puntuan azaldu dugun egoerari lotua, derri-gorrezkoa ikusten da EENren inguruan herri mugimendu sendoa eratzea, KAS eta ENAMaren barruan.

EEN proiektu soziala izanik, herri mugimenduan oinarriturik egon behar da eta honen errebindikapen bihurtu. Honela, ekintza sindikala ere eskaera sozial horren erantzun gisa planteiatuko litzateke.

Herri mugimendu hori arlo eta sektore desberdinetan hedaturik legoke: sozial, laboral eta pedagogikoa, eta hezkuntz langile, ikasle, guraso, mugimendu pedagogiko, kultural eta sozialen partaidez osaturik.

Herri mugimenduaren diseinua KAS Blokeari dagokio betebeharra dugu, bere planteiaketa teorikoan eta bere garapenerako ardatzetan ere.

4.4. LABen, beraz, lehenetasuna duen lana antolatze eta hedatze prozesua dugu, hezkuntz mailan ere baina bereziki sindikatuaren estrukturan parte hartuz.

Gure aportazioa, langile guztien aportazioa, klase eta nazional proiektua gauzatzean datza eta egun KAS Alternatibaren defentsa eta lorpenean batu behar ditugu indarrak, jendea geure proiektura hurbil araziz.

Negoiazio politikoa dugu, gaur, burruka honen ardatza eta etorkizunaren giltza.

1. eraskina

1. L.A.B. Euskal Eskola Nazionalaren alde

L.A.B.ek bururatu eta lortu nahi duen Eskola Nazionala, Euskal Herri osoan hedatua, honelakoa da: **euskalduna, publikoa, demokratikoa, dohaina, herritarra, ez-sexista, zientifikoa eta aktiboa.**

Egungo marko-politikoak ez du aukerarik eskeintzen Euskal Eskola Nazionala eraikitzeko. Egun L.A.B. kokaturik dagoen Hego Euskal Herriari dagokionez, politikoki banaturik Nafarroa eta Baskongadetako gobernuak gestio ahalmena besterik ez dute. Gure helburuak bideratzeko ezinbestekoa da aurrera pausoak bultzatzen komunitate autonomo bietan.

Nafarroan: «Ley del Vasculencia» deusezteka, eskola euskaldunak egoteko aukera ziurtatzea eta «ikastolen taldea» indartu konberjentzi prozesu bat etorkizunean bultzatu ahal izateko.

Baskongadetan: Eskola publiko berri bat egiteko borondate politikoa zabalitzen ari dira: jaio tasaren behar-kada, eredu euskaldunen eskaria, eskola euskaldunen aldeko taldeek eta euskal nazionalerako askapen mugimenduak gero eta nabariago egiten dugun indarragatik.

2. Eskola eta ikastolen konbergentzia

Abenduaren 18an Hezkuntza Saila eta Ikastoletako Konfederazioak izenpetutako akordio politikoa, **partziala** da ez duelako dohaintasunarekin batera gestio parekidea egiteko konpromisurik hartzen ezta euskarazko irakaskuntza ziurtatzeko baldintzarik aipatzen ere. Badi-tu **elementu positiboak** abiapuntutzat hartzeko: eskola publikoaren sare bakarra egiteko borondatea, denen parte hartzeaz eskola publikoaren lege orokorra egiteko konpromesua.

L.A.B.rek eskola eta ikastolen konbergentziak eskola publiko bakarra egiteko bidea bultzatuko du **baldintza** hauekin:

1. Euskal Eskola Nazionala, hau da publikoa, euskalduna..., aurrera pauso bat izatea.
2. Eskola zein ikastoletako langileok une honetatik negoziaketetan prozesuan parte zuzena hartzea.
3. Inplikatu guztien eztabaida eta parte hartze zabal-a.
4. Abenduaren 18ko akordioaren arabera ikastole-tan dohaintasuna jasotzen den une berean, gestio demokratiko parekidea betetzeko konpromisua exijituko du Administrazioak.
5. Akordio eta legeetan erantzun globalak jasotzea:

- a) Bi sareetako langileon lanpostuak ziurtatuz.
- b) Euskarazko irakaskuntzan garantizatze bidezko baldintzak.
- c) Ikastetxeetako autonomia eta gestio demokratikoa.
- d) Eskola eta ikastoletan behar den azpiegitura ziurtatu.

3. Sindikatuen parte hartzea

Akordio politikorekin batera, Hezkuntza Sailak konbergentziarako prozesua zabaldu du. Eskola Publiko berri bat egitea helburu oso garrantzitsua izanik, parlamentuan lege orokor bat egitea edo pausoz pauso aurreratzeko aukeren artean **L.A.B.ek zer proposatzen du:** pausoz pauso, herri mugimenduen eriz-pideak kontutan hartuz, inplikaturiko guztien

eskuarteaz konpromisoak zehaztuz joatea prozesuaren amaieran lege orokor batetan jasoak izan daitezten.

Orain arteko prozesuan, langileok ez dugu parte hartu eta sindikatuak baztertuak izan gara. L.A.B.ek exijitzen du:

Ikastoletako eta Eskoletako sindikatuekin mahai bat sortzea, prozesua, pausoak, epeak eta metodologia Administrazioekin zehazteko eta emandako pausoen jarraipena egiteko.

L.A.B. sindikatua sare bakoitzeko komenio eta negoziaketetan langileen eskubideak defendituz, konbergentzi bidea gauzatzen duten baldintzak lortzen saiatuko da.

4. Proposatzen ditugun pausoak

• Berehala, datorren kurtsorako

- Gestio demokratikoa erizpide bateratuen arabera.
- Negoziatu datorren kurtsorako planifikazioa.
- Lokal publikoa eta azpiegituraren beharren azterketa egiten hastea eta lehentasunak negoziatzea.
- Estabilitatea ziurtatu langile guztientzat.

• 1988-89an negoziatzeko

- Mapa eskolarra: ikastetxe eta langileen kopurua eta berauen kualifikazioaren beharrak, ratioak, ereduak eta abar...
- Langileen eta ikasleen ordutegiak.
- Langilego euskalduntzeko planifikazioa eta beharrezko azpiegitura.
- Irakaskuntzako gorputz bakarra hartzeko bideak gauzatu.
- Eredu linguistikoaren berplanteaketa.
- Eskola publikoa berriaren lege orokorra.

• 1989-90an

- Irakaslearen estatutua eta bere garapena: leku adaketen lehiaketa lansariak eta lanorduak, sare publikoan lan egiteko hartzeko bideak...
- Irakaslearen Oinarizko Heziketa eta erreziklajea.
- Pausoak batera funtzionatzeko.

5. Prozesu honen arriskuak

Matrikula garaiko lixkarrek talde politikoa eta ekonomikoaren arteko interes ezberdinek eta zenbait presio taldeek prozesu hau ankar gora jartzeko duten interesagatik saiatuko dira ikastola eta eskoletako langileen arteko borroka sortzen. **L.A.B. gogor saiatuko da elkarren arteko lana eta helburu berdinarik ditugunon ahalginak batzen.**

Bestalde adi egon beharko dugu gure eragina sendotzeko eta **hartzten diren konpromisoak hutsean geratu gabe zuzen bete daitezten exijitzeko eta ematen diren pausoak sare bien arteko hurbiltze erreala suposa dezaten, garantiarik gabeko diru publikoaren edozein erabilpen salatuz.**

Azkenik euskalduntze prozesuan aldaketa kualitatibo indartsuak lortzen ez baditugu, eredu berplanteaketa, langilegoaren euskalduntzea e.a. PSO Eren asmoen jarraituz gerta daitezke sare bakar bat egin arren bertan eskola mota bi sendotzea: euskaldunak eta erdaldunak. **L.A.B.rek irakaskuntza osoa euskalduntzera zuzenduriko plangintzaren alde borrokatuko du.**

2. eraskina

LAB-ek **Eskola Publiko Berriaren** prozesuari begira proposatzen duen dinamika hiru mailetan sailkatzen du:

1. **ESKUALDETAKO PLANGINTZAREN INGURUAN:** Eskualde eta herri mailan oinarrituriko proposamena, ikastola eta eskola transferituetako langileak partaide izanik eta bertako egoera aztertuz, beti ere irakaskuntzaren euskalduntzea helburu nagusia izanik.

2. **SARE BAKOITZEKO PROPOSAMEN SINDIKALAK:** Euskal Eskola Publikoa helburutzat hartuta, sare bakoitzak bere arazo zehatzei erantzunak emateko dinamika propioa gauzatu behar duelakoan gaude, helburu orokorrak kontutan hartzen dituen planteiamendua egiten.

3. **ESKOLA PUBLIKO BERRIAREN DISEINUAN PARTE HARTZEA:** Administrazioak aurrerapausu batzuk eman ditu, prozedura honetan bi sareetako langileak eta sindikatuak bartertzen. LAB-ek administrazioari sindikatuekin mahai bat eratzea exigitzen dio.

1.- ESKUALDETAKO PLANGINTZAREN INGURUAN

LABen ustez, bateratzen prozesuaren egokitasunak maila honetan ere hasi eta gauzatu behar du. Problematika errealean oinarriturik eta langileen partehartze zuzena ziurtatuz.

- 1.1. Sare bietako ikastetxeetako azterketa, ikaslego, irakasle-go eta beste langileen egoera eta honen bilakaera ezagutzeko, Eskola Publiko Berri Euskaldunari begira eman behar diren pausuak zeintzuk diren jakiteko.
- 1.2. Azterketa sare bietako langileek burututako lanean oinarritzen da, prozesutik sortu ahal diren arazo laboralak agertaraziz, irtenbide egokiak bilatzeko asmoz (beti ere eskubide berdinez).
- 1.3. Egoeraren azterketak eta baldintza eta beharrizan laboralak (eskola euskalduna eratzeak eskatzen dituenak) kontutan izanik, plangintzaren beharra agertaraztea dugu helburua, plangintza honetan eskubide sindikalak ziurtatuz.
- 1.4. Konbergentzi prozesuan, euskalduntze arloan, irakaskuntzako langileen partehartze bateratua bultzatzen dugu aurrematrikulazio kanpainaren barruan.

2. SARE BAKOITZEKO PROPOSAMEN SINDIKALAK

2.1. ESKOLA TRANSFERITU MAILAN

LABek, CCOO-ELA-UGT sindikatuek sinatu duten akordioaren kontrako jarrera bultzatuz, langileen lan baldintzak hobetuko dituen konbenioa negoziatzea aldarrikatzen du.

Zentzu honetan iazko plataformaren ardatz nagusiak negoziatzea eskatzen dugu: estabilitatea, homologazioa, planifikazioa, euskalduntzea, sistemaren demokratizazioa, eskubide sindikalak. Mahai sektoriala lehen bait lehen eratzea exigituz.

Ez dugu uste helburu hori lortuko denik, ez gara baikorrak baina lortu behar dugu langilegoaren sektore zabal batek bide egokiena bezala jotzea:

- . Orain arteko akordioa zalantzan jartzeko eta ezinbestekotzat ez hartzeko.
- . Administrazioak zenbait ekintza sindikalen baztertzea salatzeko.
- . Administrazio eta sindikatoen artean sortuko diren kontraesanak sakondu eta ondorioz agertuko diren aukerak aprobetxatu aurreratzeko.

Hau bideratzeko, LABek idazki bat prestatu eta irakasleek kalustroetan aurkeztu eta onartzea proposatzen du, ondoren, Administrazioaren aurrean sindikatoekin eskaera berrindartua agertzeko. (ikus eranskina)

LABentzat, egoera argitzen ez den bitartean, ez da bidezkoa paktoa sinatu duten sindikatoekin batera inolako ekinbiderik bultzatzea.

2.2. IKASTOLAK

Une honetan, konfederazio eta Administrazio mailan bakarrik ematen diren negoziaketak, eta arlo ekonomikora bakarrik mugatu dituzte. LABek, langileen ordezkarien partehartze zuzena exigitzen die eta ematen den edozein urratsetan azken helburua kontutan duen planteaketa global bat egitea. Gutxieneko atal hauei erantungo zaie:

- . Etorkizunean, beraien eskubideak zirutatuz, ikastoletako langileei eskeiniko zaien irtenbidea.

- . Egungo lanpostuen iraunkortasuna (exzedenterik ez) eta egungo egoera legala eta laborala ez aldatzeko konprometua langileen ordezkariekin akordioak lortu arte.
- . Euskalduntze prozesua era egokian bermatzeko baldintzak.
- . Irakaskuntza euskalduna garatu ahal izateko eskualdeka planifikatzeko oinarriak (ikastolak-eskolak).
- . Gestio gintza demokratikoa gauzatzea ikastoletan.

Egun, LABek, sensibilizazio eta mobilizapen kanpaina bati ekingo dio helburu hoiak gauzatzearren:

- Ikastola guztietan asanbladak egitea, egoera aztertzeko.
- Asanblada hoiak ondorioz, idazkiak egitea erribindikapen nagusienak Ikastoletara, Konfederakundera eta Jaurlari-tzara bidaltzeko.
- Arazoa prentsan kaleratzea.
- Azaroak 30ean LAKUAN delegatuen konzentrazioa.
- Administrazioari exigitu ...
- Abenduak 13an ikastoletako langileen asanblada, arratsaldeko 6,30etan Durangon, aurrera begira, egoera eta ekin-bideak aztertzeko.

3.- ESKOLA PUBLIKO BERRIAREN DISEINUAN PARTEHARTZEA

Hezkuntza Saila, ikastoletan eta eskoletan birmoldaketa egiten ari den bitartean (konfluentziarako legea, Vascongadetako Batzorde Eskolarra, Gestogintza eta Autonomiaren aurreproiektua, POT eta Ikuskaritzaren birmoldaketa, ...), bi sareetako langileak sindikatoak baztertuak izan gara. Beraz, LABek zer exigitzen du:

Ikastoletako eta Eskoletako sindikatoekin mahai bat eratzea, Eskola Publiko Berriaren legearen markoa, prozesua eta metodologia zehazteko.

LAB negoziaketak zabaltzearen alde dago, benetako negoziaketa emango ez denaren ziurtasuna badu ere. PSOEk inoiz negoziaketaren antzeko bat egiten badu itxurak gordetzeko edo bere helburuak bultzateko izango da.

Zergatik ez "guztien" talde zabal bat bertan kontsentsuatzeko? "Denon" parte hartzea ez da gure helburu nagusia. Gure helburu "guk nahi dugun eskola mota lortzea da" eta hori ez da konsenso hipotetiko batez lortuko. Ez dugu inongo interesik, egun, eraginik ez duten zenbait talde indartzen saiatzeko. Administrazioak interes berezia eduki lezake une batetan, eragin-talde batzuk sortzen eta bultzatzen "bere" eskola eta bere helburuak gauzatzeko kontsentsua edo diskriminazio ez argudiatuz.

Eskola Publiko Berriaren markoan baldintza hauek bete behar dira:

- . Eskola Publikoa eta Bakarra, irakaskuntza euskalduna ziurtatuko duena.
- . Gestio demokratikoa eta parekidea.
- . Ikastetxeen benetako autonomia.
- . Bi sareetako lanpostu guztiak ziurtatu.
- . Kalitatezko irakaskuntza lortzeko behar den azpiegitura

3. eraskina

1. Gure eskola-proiektua eta baldintza politikoak

Bistan da, gure egungo taktika eta lanerako programa, defenditzen ditugun helburuen arabera eta funtzioan planteiaturik daudela. Alegia, egoera politiko horretarako eskaintzen dugun alternatiba, biharko ESKOLAREN eta Euskal Herriaren berreirakuntzarako proposatzen dugun ereduan finkatu eta sustraiturik dagoela.

Hargatik, txosten honen harira zuzen-zuzen sartu baino lehenago, ezinbestekoa bilakatzen zaigu, argi eta garbi adieraztea, gure jomuga Euskal Eskola Nazionala garatzea dugula eta horretarako nahitaezkoa zaizkigun baldintza politikoak zeintzuk diren azpimarratzea.

1.1. Gure helburua: Euskal Eskola Nazionala.

Gaur egun nola jokatu eta zer egin zehazteko, ezinbestekoa dugu geure NORA-BIDE edo helburuak argi edukitzea. Bitarteko egokiak aukeratzeko, nahitahiezkoa dugu geure norabideak beti begibistan jartzea. Beraz, irakaskuntzan gaur nola jokatu markatzeko, biharko gure herrieskola nolakoa egin nahi dugun kontuan hartu behar.

Ildo honetatik eta besteak beste, geure biharko eskolaren zenbait bereiztasunen artean, ondorengoak azpimarratuko genituzte:

ESKOLA NAZIONALA.

Guk izen honekin orain arte ezagutu dugun eskola, eskola "estatala" eta "espainola" izan da. Euskaldunok, inoiz ez dugu geure "eskola nazionalik" ezagutu. Baina, "eskola nazionalik" gabe nazio projekturik eraiki ezin denez gero, geure helburu garrantzitsuenetariko bat jadanik helburu honen alde burrukatzea dugu.

Zeri deitzen diogun eskola nazionala? Gutxienez ondorengo baldintzak betetzen dituenari:

Euskal Herri guztian hedatutako eskola publikoari. Lehen epe batean Hego Euskadi osoan, eta ondoren, zazpi probintzietan zabaltzen denari. Programa eta plangintza osoa Euskal Gobernu Nazional baten eskuetan lukeenari.

Maisu-maistra guztiak Euskal Herriko erakunde bakarraren esku eta administraziopean leudekeenari. Baina euskal eskola "nazional" hori oraindik eginkizun da, helburutzat jotzen dugun proiektu politiko bat da.

ESKOLA EUSKALDUNA.

Ez da nahikoa eskola nazionala nahi dugula esatea. Euskalduntasunak gizarte bati hizkuntzaren aldetik dator kion marka berezia eransten dio. Horregatik, "euskal eskola" esaten denean ongi zehaztu behar da horren bidez zer esan nahi den, zeren, zoritxarrez, zori oneko "euskal" hau era askotara uler baitaiteke. "Nazionala" eta "euskaraduna", gure kasurako, kontzeptu osagarriak dira, baina ez gauza bera.

Gure hizkuntza nazionala euskara da eta horregatik nahi dugu irakaskuntza guztia euskaraz. Herritar oro euskaradun izanik, herriak berak bere espresio-bidearen eremu zabala euskararen bidez azal dezan. Eta Euskal Herrian euskaraduna diogunean, euskal lurralde osoa esaten dugu, Iparra nahiz He-

goa, lurralde euskaragabeak barne; Araba, Bilbo, Erribera, Enkarterri, etab., Euskal Herri osoa euskalduntzeko helburuak hutsegiten badu, askapen nazionalaren aldeko burrukak galdurik luke bere zutaberik behinena.

ESKOLA PUBLIKO BAKARRA.

Publikoa, berez pribatuari kontra jartzen zaio. Publikotasuna, hitzaren zentzu hertsian, irakaskuntzaren antolakuntza administratibo-politikoari dagokio.

Hori horrela, batik bat, eskola publikoaren alde honengatik gaude:

Herriko ikasle guztientzako aukera-berdintasun berbera nahi dugulako. Guztientzako aukera berberak. Eta eskola pribatuak egiten duena, hain zuzen, horixe da: "bere" eskola egin, diruaren truke.

Eta eskola publiko BAKARRA, noski. Sare publiko bakarra.

Gure herrian %55 haurrek eskola estatal edo transferituetan egiten dituzte beren ikasketak. Beraz, bihar eguneko EUSKAL ESKOLA NAZIONALAREN zutabe bat, gustatu ala ez, nahi ala ez, eskola horixe dugu.

Eskola hori alde batera uztea edo hortik kanpo beste "bide publiko" bat bultzatzea, okerbidetik abiatzeaz gainera, hutsegite historiko bat egitea izango litzateke.

Guk defendatzen dugun euskarazko eskola nazionala ezin izan daiteke gaur den bezalako: zatikatua, hots, bakoitza bere aldetik dabilena. Ezin dute bi taldeek, batetik euskaragabeek eta bestetik euskaradunek, elkarrengandik banatuta segitu. Eskola nazionalak sare bakarrera bildu behar ditu bai ikastolak eta bai beste guztiak plangintza orokor baten barruan. Sare bakar baten beharraz ari gara hemen, horretaz batez ere, ez hainbeste beraren nolakotasunaz, zeren eskola-mota guztiak sare bakarrera biltzeak alde zurretik programa zehatz bat mamitzea eskatzen baitu, euskarari kalterik etor ez dakion.

ESKOLA DEMOKRATIKOKI GESTIONATUA.

Gizarte demokratiko bati dagokionez, gizarte bizitzan bezala irakaskuntzako zentruetan ere, askatasun demokratikoak errespetatu eta landuko lituzkeena. Irakaskuntza prozesuan parte diren ikasle, irakasle, eskolako langile eta gurasoen partehartze zuzena eta egokia bideratuko duena. Guzti horien partizipazio eta protagonismoa ziurtatuko duen eskola; barne demokrazian bermatua, alegia.

ESKOLA HERRITARRA.

Gaurko eskola biharko gizartearen zutabe eta oinarri. Beraz, gure eskola, herri langilearen zerbitzuan eta ez balore eta jokaera burgesen transmititzaille.

Herrian txertatua eta herri mugimenduekin batera lanean diharduen eskola. Gaurko gizarte honekiko kritikoa. Zabala eta irekia.

1.2. Eskola Nazional honek eskatzen digun marko politiko berria.

Herri Batasunak behin eta berriro oihukatu eta aldarrikatu izan du, eta zorritzarrez aldarrikatzen jarraitu beharrean aurkitzen da, Espainiako erreforma politikoaren fruitu bitxia diren Autonomi Estatutuak ez ditugula ba-

tere tresna egokiak Euskal Herriaren Subiranotasuna lortzeko. Autonomi Estatutu hauek ez dizkigute Euskal Herriaren berreraikuntzan nahitanahiezoak ditugun zenbait ahalmen eskuratzen. Eta konkretuki, besteak beste, Estatutu hauek ez dizkigute Eskola Publiko eta Nazionalerako bideak zabal-tzen.

Madrileko Gobernuak ez dio Gasteizkoari irakaskuntza publikoa transferitu, hots, ez dio eskolaren PLANGINTZA AUTONOMOA transferitu. Baskongadetako gobernuari eskolaren GESTIOA EDO ADMINISTRAZIOA pasa diote, baina inola ere ez beraren ZUZENDARITZA, zeren eta oraindik ere Madrileko gobernuaren kontrolpean jarraitzen baitu irakaskuntzak. Hezkuntz sistemaren itxura eta azaleko deszentralizaziora heldu gara, baina hain beharrezkoa dugun funtsezko autonomiarik ez da lortu. Eta froga bezala, aipatu besterik ez, eskoletako langileek Madrilekiko duten menpekotasuna.

Nafarroari dagokionez, berriz, gauza berdintsua. "Amejoramiento" delakoaren bidez, Nafarroako "gobernu" probintzialak ez du autonomiarik nahikoa irakaskuntza planifikatzeko; Madrileko gobernuaren administradore hutsak eta soilak baitira, eta beraz ez da gauza haundirik aldatuko Nafarroako gobernuan irakaskuntza transferitutakoan.

Beraz, kontuan izanik inoiz eta dugula lortuko euskal eskola publiko eta autonomia gaurko sasi-demokrazia zentralista honetan, Herri Batasunaren eritziz, irtenbide bakarra zera dugu: Hego Euskal Herri osora hedatu eta gure herriaren berreraikuntzarako funtsezko tresnak eskainiko dizkigun Autonomi Estatutuaren lorpena. Hau da, gure herria berreuskalduntzeko tresna eta irakaskuntzaren kontrola emango digun burujabetasunaren lorpena. Hitz batez, euskal eskola publikoa eta nazionalak, MARKO POLITIKOA ALDATZEA eskatzen digu, hau da: KAS ALTERNATIBA LORTZEA.

1.3. Gure burruka oraingo fasean.

Gure helburua Euskal Eskola Nazionalaren eraikuntza dela jakinik, egungo egoerak eskatzen dizkigun zeregin nahiz partehartzeek, norabide horretarantz zuzendu behar ditugu. Halere, bai Iparraldean, bai Baskongadetan nahiz Nafarroan ematen den egoera politiko-administratiboek, helburu edo eskola erduetan jokabide berbera eskatzen duten arren, berehala betetzeko helburuetan ekintza modu desberdin eta berezitua behar dute.

Zentzu honetan, Paris eta Madrilek inposaturiko 3 lurralde administrati-boak zein probintzia bakoitzeko egoera heterogenoa ezagutuz, errez da suposatzea gure partehartze nahiz lehentasunak bereizteko premia.

A. ESKOLA TRANSFERITUEN ETA IKASTOLEN ARTEKO BATERAKUNTZA BASKONGA-DETAN.

Geroago adieraziko dugun legez, Herri Batasunak positibotzat jotzen du, Ikastoletako Federakundeak eta Eusko Jaurlaritzak azken Abenduan sinatutako akordioko jokabidea. Dokumentu hori, ordea, asmoen deklarazio politikoa baizik ez da. Dena dago garatzeke.

Prozesu luze eta konplexu hau, giltzarri izango da gure eskolaren etorkizunean. Horrexegatik gertatzen zaigu nahitaezko geure eskuhartzea, bai eskola transferituetan nahiz ikastoletan.

B. NAFARROAN, IKASTOLAK ZUZPERTU, INDARTU ETA BERRIAK SORTU.

Herrialde honi dagokionez, zenbait burutapen egin nahi genituzke. Berezi ki egoera berezia bizi duelako eta gure joera eta burruka bideak ondo zehaztea oso beharrezkoa dugulako. Momentu honetan oso erreza da borondate onenarekin hanka sartzea eta horretan jausi ez gaitezen, neurriak hartu beharrean gaude. Egoera konplexua eta zaila izan arren, guk uste nahiko datu baditugula, zenbait orientazio zehatz burutu eta plazaratzeko:

B.1. Baldintzarik gabeko fusioaren aurka. Konbergentziarako baldintza minimoen beharra.

Lehenik, argitu behar dugu Herri Batasunak ez duela inoiz aldarrikatu ikastolen fusioa bide egoki eta eredutzat. Gure jarrera guztiz alderantzizkoa izan da. Fusio edo integrazioak, ikastolak beste eskoletan desagertzea dakar. Alegia, eskola estatalak, herriak sortutako ikastolak irenstea. Eta hori gertatzea, atzerapausu nabarmena litzateke.

Herri Batasuna gisa, ikastola eta eskola estatal-transferituen arteko konbergentzia, konfluentzia edo ekiparazio juridiko baldintzatua defenditzen dugunean, ez dugu ikastolen desagertzea proposatzen, irakaskuntzako bi sare horiek bilduz kalitatezko eskola Publiko Euskalduna lortzea baizik. Ez dugu ez, ikastolek aportatu diguten euskalduntasuna baztertu nahi, eskola publikoan transformatuz, herri-eskola honen bereiztasunak bultzatu eta bideratu baizik. Eta dena den, garbi azpimarratuz, konbergentzi prozesu hau ez dela gure azken helburua. Egia da, ondo ematen den neurrian, Eskola Nazionalaren bidean aurrerapausua bilaka daitekela, baina inola ere ez, geure Nazio proiektuak esijitzen digun Euskal Herri guztira hedaturiko eskola Euskalduna.

Ikastola eta eskola transferitu edo/eta estatalen arteko hurbilketa zein kasutan izan daiteke aurrerapausu eta zinetan? Hor dago hor gakoa! Hauxe dugu hausnartu eta sakondu behar dugun arazoa. Eta galdera honek balio du Administrazio guztientzako: Baskongadak, Nafarroa edo Iparralderako. Beraz kasu guztietan konbergentzi prozesu batek bete behar dituen baldintzak, berberak dira:

- a) Euskalduntasuna. Alegia, irakaskuntza osoa, epe labur batetan, euskalduna izateko garantia eta aukera eskaintzea.
- b) Irakasle eta langileen eskubideak errespetatuak izatea. Beraien eskubideak eta lanpostua ziurtatu eta irakasle diren guztiei, euskara ondo menperatzea esijituko duen legeria.
- c) Gestio demokratikoa eratzeko aukera.
- d) Dohantasun osoa garantizatzea.

Baldintza horiek betetzeko funtsezko ziurtasuna dagoen neurrian, konbergentzi prozesu egokia buru dezakegu, baina horretarako garantiarik ez dagoenean, batez ere lehenengo biei dagokionez, hortik abiatzea geure burua urkatzea litzateke.

B.2. Nafarroako gaur eguneko marko legalaren barnean, baldintza minimoetarako ezintasuna.

Aipaturiko baldintzak ziurtatzea ez da ez erraza gaurko marko juridiko-po-

litikoan. Areago, Espainiako Konstituzioak eta Autonomi Estatutuek gaztelaniaren lehentasuna garbi aski azpimarratzen digute. Eta zer esanik ez, Frantziako Konstituzioa ere bide berdinetik doala. Hala ere lege horien garapena ez dira hausartzen berdin egitera Baskongadetan, Nafarroan edo Iparraldean.

Baskongadetan, oso zaila dugu eskolaren euskalduntasuna ziurtatuz ikastola eta eskola transferituen arteko konbergentzia burutzea, baina juridikoki bide horiek ez daude itxirik eta beraz irekitzen saiatu behar gara. Ez dakigu lortuko dugun, baina merezi du ahalegina egitea. Burrukatu ondoren bide guztiak ixten badizkigute, ikastolek lehen bezala jarraitu beharko dute, gaurko instituzioen porrota eta ezina inoiz baino garbiago geldituko zaigularik. Aurrerapusu hori lortuko bagenu, berriz, euskalduntze prozesuan eta eskola Nazionalaren bidean urrats garrantzitsua emanen genuke.

Nafarroari dagokionez, berriz, esan beharrean gaude, bide horiek jadanik nahiko itxita dauzka gula:

- Ley del Vascuence delakoak Nafarroako eskola euskalduntzeko bide guztia ixten dizkigu. Euskararen ofizialkidetasuna zonalde txiki batetara mugatuz gero, euskarazko irakaskuntza herrialde guztira zabaltzen zaila edo ia ezinezkoa.

- Oso berri dela plazaratu duten "Decreto sobre centros y plazas bilingües" delakoa, guztiz argigarria dugu. Batetik bakar-bakarrik zonalde batetara mugatzen eta bestetik irakasle goari ezer esijitzeko borondate eza, bildurra edo ezina adierazten digulako. Xedapen iragankorrean honela dio:

"1.2. La creación de plazas de o en euskara en los centros Públicos de Navarra no supondrá en ningún caso el desplazamiento forzoso fuera de la localidad de los actuales propietarios definitivos."

Horrela adierazten diguna zera da, zonalde euskaldunetan ere eskola oso-osorik euskalduntzeko asmorik ez dutela.

B.3. PSOEren helburua: Ikastolak ixtea.

Jakin bagenekien PSOE-ren helburua zein zen, baina azken boladan amorrut biziagoaz ekin dio helburu honi. Aspaldidanik ari zitzagun, ikastolei laguntza murriztu nahirik, ikastoletako haur-matrikula behera etor zedin gezurrak eta esamesak gurasoen artean zabaltzen etabar. Azken aldera bete betean ikastolen aurka hasi zaizkigu eta horren frogarria eskuratu ahal izan dugu: "Documento base para el desarrollo de las conversaciones entre el departamento de Educación y cultura del Gobierno de Navarra, MEC y Federación de Ikastolas" delako txostena.

Idazki edo dokumentu honen arabera, Nafar Gobernuaren proposamen orokorra hauxe da:

- Nafarroako ikastola guztien egoera juridikoa erregularizatzea, baina ikastetxe pribatu kontzertatu izateko baldintzak betetzen ez dituzten guztiak desagertaraziz.

- Baldintza horiek betetzen ez badituzte, eskola estatalarekin elkartzera behartzea.

- Aurrerantzean, ikastola berriak sortzea galeraztea.

Eta guzti hori epe labur baten barnean lortu nahi dute gainera. Hala nola:

- Ikastola gisa desagertuz beraien egoera erregulariza erazi nahi dieten 29

ikastola hauek, 1990ko abuztuaren 30rako egin behar dute. Beraz, datoren bi urteetan.

- Hauetatik 30 (10 ikastola) aurtan bertan fusionatu beharko lukete.
- Ikastolaren bat bere egoera erregularizatu gabe geldituko balitz, diru laguntza guztiak galtzeko arriskuan omen dago.

Hona hemen labor bilduz, PSOE-ren proposamena zertan datzan:

IKASTOLEEI DAGOKIONEZ:

- * Hiru ikastola handi eta bere kabuz funtziona dezaketenak, Leitza, Lesaka, eta Hiruerri, ez dira legeztatuko, fusionatuko dira eta euskarazko irakas-kuntza ziurtatuko omen zaie "egungo legearen arabera"
- * 15 ikastola txiki ikastetxe estatalarekin fusionatu "euskaraz irakastea ziurtatuz".
- * 6 ikastola txiki osorik desagertetazi, euskara asignatura bezala iraka-tsiz (ez baitaude "zona vascofonoan").
- * 5 ikastolatan (Sartaquda, Lumbier, Zangotza, Biana eta Tutera) lekuan le-kuko eztabaida.

LANGILEEI DAGOKIONEZ, BERRIZ:

- * 1987ko irailaren 15ean kontratu finkoz lanean ari zirenak
- Gobernuak kontratuko ditu 1990 arte eta nahi duen lekura destina ditzake euskara edo euskaraz irakasteko.
- Konkursu/ oposizioetara irakasle beste plaza aterako ditu. 3 konbokatoria izango lituzkete.
- Oposaketak Ministaritzako arruntak izango dira.
- Gaingitzen ez dituztenak, kalera.
- * Titulurik ez dutenak:
- Kalera.
- * Kontratu finkorik ez dutenak:
- Kalera.

B.4. Herri Batasunaren jarrera

- Nafarroan ere, eskola NAZIONALAREN bidean, eskola Publiko eta Euskaldu-na aldarrika dezakegu, baina edozein konbergentziarako esijitzen ditugun baldintzak ezinbestekotzat edukiz. Horretarako, txosten honetan eskola Pu-bliko Euskaldunaren eredua proposatzen dugu, funtsezko errebendikapena izango dugularik.
- Dauden ikastolek zuzpertz eta berriak sortzea izan behar da gure lehen helburua. Aurrerago egin dugun azterketa laburraren arabera, geure burua urkatzea litzateke gaur egun Nafarroan konbergentzi bidea bultzatzea. In-dar-erlazioa guztiz aurka izateaz aparte, Gobernuaren helburuak oso garbi daude eta plazaratzen ari diren dekretu eta sasi-legeek bide guztiak moz-ten dizkigute.
- Ikastoleei esker euskalduntze prozesuan eman diren aurrerapausuei eutsi behar diegu. Bide berriak zabaltzea ondo dago, baina aurrekoak itxi gabe. Ezin gure lorpenak zapuztu, hainbestetan ustelak bilakatu zaizkigun hitz hutsetan finkatuz. Eta gainera kontuan izan behar dugu, ikastolek funtzio erakargarria betetzen dutela. Alegia, beste eskola guztientzako eredu bi-hurtzen direla. Ikastolek desagertuz gero, beste eskoletarako lasaieria

eta utzikeria zabalik.

- Eskola estataletan euskara bultzatu, baina beti ere PSOE-ren jokuan jausi gabe. Alegia, ikastolaren aurkako ziria bilakatzen ez den neurrian. Jakin badakigu, ez dela batere erraza arazo hau orekan bideratzen, baina dena den gure erizpideak hauexek izan behar dira.

- Jarrera garbi eta zehatza hartzea zenbait herrietan bederen, nahiko konplexua izanen denez gero, tokian tokiko egoera ongi aztertu beharrean aurkitzen gara. Baina dena den ez herri bakoitzak bere erabaki propioa eta berezia hartzeko, denon artean kontraesanak nola gainditu erabakitzeko bai-zik. Ikastolaren fusioa bultzatu ala ez, ez da herri bakoitzaren erabakia, nazio-ikuspegitik hartu behar duguna baizik.

C. IPAR EUSKADIN, SEASKAREN ALDEKO LAGUNTZA.

Ipar Euskadiko ikastolak, SEASKAREN inguruan erakundetuak, jasaten ari diren egoera gorriak, haien alderako antolatzen diren ekintzak bultzatzera behartzen gaitu. Gure Eskola Publikoa ez da Nazional bilakatuko, harik eta Euskal Herriko 7 probintzietan irakaskuntza sare BAKARRA erdiesten dugun arte. Une honetako egoeran, baterakuntzak baino irauteak arduratzen gaitu.

D. GUZTION ARDATZA: ESKOLAREN EUSKALDUNTZEA.

Euskadiko lur eta administrazio zatikatze hirukoitzak, gure epe laburrerako lanean lehenetsunak seinatzera behartzen bagaitu, azpimarratu behar-ko dugu baita ere, batera dugun proiektuak homogenizatzen gaituela; hau da, EUSKAL ESKOLA NAZIONALAK eta euskal lurraldeko lanetan biltzen gaituen ardatzak: eskolaren euskalduntzea bermatzeak. Helburu horixe, -eskolaren euskalduntzea bermatzearena-, da proiektu nazional bakarraren barnean, taktika desberdin eta berezituak aztertzea behartzen gaituena. Jakina da, ikastola eta eskola transferituen baterakuntza egin ondoren, Herri Batasunak esijitzen dituen baldintzak identikoak direla bai Nafarroarako nahiz Iparralde edo Baskongadetarako; haatik, azken Komunitate Autonomoan, -une honetan aztertuko ez ditugun arrazoi linguistiko edo indar-erlazioagatik-, eztabaidarako abagadunea aurki dezakegun arren, gainerakoetan jendarteratzea Euskararen galpide eta buruhilketarako bidea izango litzateke.

Guzti horrengatik, gure Euskal Nazioa -zeinen harreman eta komunikazio hizkuntza EUSKARA izango den-, eraikitzeke estrategiak, taktika desberdin eta zehaztuak gauzatzera garamatza, beti ere egitasmo bateratu eta bakarraren ildotik.

2. Zergatik eta zeintzu baldintza- tan gauden eskola transferi- tuen eta ikastolen arteko kon- bergentziaren alde

2.1. Aldez aurreko zenbait ohar.

HERRI BATASUNA ikastola eta eskola transferituen arteko elkartzeko prozesuaren alde dago, 1987.eko Abenduan Ikastolen Federazioak eta Gobernu Baskongadoak sinatutako hitzarmenaren bidetik, beti ere dagokien guztientzat eta bereziki Euskal Herriaren nazio berreraikuntzaren prozesurako elkar-
tea positiboa, erakargarria eta onuragarria izan dadin guretzat ezinbestekoak diren gutxienezko eta oinarritzko baldintzak bermatzen badira.

- PROZESUAREN AURREKO UZKURTASUNA.

Irakaskuntzaren arlo askotan, hitzarmen hau eta berarekin zabalduetako prozesu guztia direla eta, mesfidantza, zalantzak eta larritasuna agertzen dira. HERRI BATASUNAREN eritziz, badira arrazoiak zuzentzeko eta ez dugu inolaz ere irudi faltsu eta arriskutsu bat eskaini behar, hezkuntzako sare bion arteko elkarteta positiboa egindako gauzatatzeko; irudi eta ilusio hau geure ahalbide guztiez ekidin behar dugu eta. Baina ez dugu ez-
kortasun antzu eta faltsurik izan behar ere, nazio-berreraikuntzarako proiektuarekin zerikusirik ez duten interesetan oinarriturik edo gure nazio eta gizarte askapenerako bururakarekin ikuspegi orokorraren gabeziagatik edota, kasurik onenean ere, borondate onez izan arren, puritaukeria gehiegizkoagatik.

Jazargo eta berritasun honen sorburua, kausa eta arrazoi ezberdinak dira, eta argitzea komeni zaigu:

Prozesu honen aurrean sektorerik uzkurten eta kritikoenetarikoa bat, ikastolak oraingo sare transferituan integratu nahi izango lituzketenek osatzen dute, irakasleen lanpostuak eta euskararen beraren aspekturik funtsezkoen eta oinarritzkoenak ziurtatzeko argitasunik eta osoko bermerik eskaintzen ez bada ere. Berauek, prozesua arin eta sinplea izan ledin nahiko lukete, EE-k Parlamentu Baskongadoan egindako proposamenaren bidetik; azkenean lortu ez bazuten ere, PNVrekin paktatzera ere heldu zirelarik.

Beste sektore batzu, ikastolak errealitatetik at idealizatuz eta irakaskuntzako euskalduntze-lana ia eskusiboki ikastolei dagokien ustean, ezezkorrerik dira eskola transferituekin eta praktikan gure eskolak "jabego pribatuko esparru" izan daitezen nahi dute. Teoriaz, eskola publikoaren alde daudela diote, baina beren ikastoletan irakaskuntza pribatuko kooperatiba batetan izan zezaketen jokabide berbera defendatzen dute.

Bestalde, beldur eta uzkurtasunaren sorburua federazioen beraien jokabide eta azken aldiotako historian dago. Jokaeraren aldaketa ez dela zinezkoa uste dute, edozein momentutan ziria sartuko digutela, ez daudela benetan Eskola Publiko eta Euskaldun Bakarraren alde, etab.

Azkenez, planteiatzen den prozesua luzeegia dela eta beronen zioa ikastolen zorrak diru publikoaz kitzatzea lortzeko estrategia dela, Euskal Eskola Pu-

bliko berrirantz urrats sendoak emateko konpromezurik hartu gabe, uste dutenak badirela esatea. Federazioez eta ikastola askoren borondateaz mesfidati daude.

- PROZESU ZAILA BAINA ONGI BIDERATUA.

Zenbait beldur eta uzkurtasunen sorburua datu egiazko eta kontrastatueta dago, baina gure politika horretan oinarritzea, ikuspegi partzial eta presatuegia izatea dela uste dugu. HERRI BATASUNAK ere baditu uzkurtasuna eta beldurra, baina prozesu honen alde jokatu behar dugula argi eta garbi deritzogu, emaitzak oraindik ikustekoak direla eta parte handi batez gure eskuetan daudela jakinda. Apostu honetan etsai asko eta aurkako frango aurkituko dugu, baina asko dugu jokuan eta ahalegin guztiak egin behar ditugu.

Ikastolen Federazioen eta Gobernu Baskongadoaren artean sinatutako hitzaurrea urrats garrantzitsuak da Eskola Publiko Bakar eta Euskalduna lortzeko bidean eta bide zuzenetik doa. Federazioen norabidearen aldaketa garrantzitsu hau sendotu eta bultzatu behar dugu.

Egia esan, ez dira kontraesanak, kritikak eta eztabaidak faltako. Baina, gaiaren zailtasunak sorturikoan izango dira batez ere. Euskadiko irakaskuntzaren atalean, beste faktore batzuren artean, klase-interesak, eskolaren berreuskalduntzearen apostuaren aurrean dagoen sentikortasun ezberdintasuna eta Euskal Herriaren Nazio Berreraikuntzari buruz dauden aukera politiko ezberdinak elkargurutzatzen dira, honelatan gure eskolaren etorkizunari buruzko planteiamenduak guztiz konplexuak direlarik. Hainbeste aldagai dagoenez, edozein planteiamendu errazegik arazoa desitxuratzen eta desenfokatzen du. Beraz, formulazio linealak eta prozesu garbi eta kontraesanik gabekoak egon daitezzen saiakerak, zentzuzkoak izan arren, ez diote bizi garen errealitateari erantzuten.

Hau guztiau dela eta, kontraesanak izan arren, funtsean hitzarmena zuzena da eta gure laquntza eta, batez ere, partaidetza aktiboa behar du.

- FUNTSEAN GURE ALTERNATIBARI EGOKITZEN ZAIO.

Herri Batasuna eta NAEM osoa izan dira, ordezkariak parlamentarioa duten indar politikoaren artean, azken urteotan tinko eta koherenteki bi eskola publiko paralelo sortzeko politika -Euskadin komunitateen arteko zatiketa suzatzeko arrisku nabarmena dakar eta- eta zer eta oraingo eskola transferigarrian integratzea proposatuz ikastolak likidatzeko asmoari aurka egin dieten bakarrak. Herri Batasunak konbentzimendu osoz eta adonez defendatu du Eskola Publiko eta Euskaldunentz jo beharra dagoela, baina ikastolen ezaugarri bereziak osoki errespetatuz. Besteren artean, hezkuntzako sistemaren euskalduntze-prozesu oso eta integrala bezalako oinarritzko nortasun-agiria bermatuko zuen EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA suharki defendatu duen indar politiko bakarra izan da.

EIKE-ren aurka kasu batzutan eta EE-k eta PSOE-k transferituetan bermerik gabe integratuz ikastolak likidatzeko egindako saioren aurka bestetan, Herri Batasunak oztupo guztien aurka burruka egin du, Euskal Nazioa eraikitzeko dugun zereginean oinarritzko ardatz-idea bi elkartzeko: ESKOLA PUBLIKO BAKARRA eta EUSKALDUNA izateari dagozkionak. Lehen idea, Euskadi ez da-

goela etorkin eta bertokoen komunitateen artean banaturik eta gatazkan adierazteko, baizik eta beren emanzipazioa lortzeko burrukan ari diren langile klase eta sektore herrikoiak eta bertakoak elkaturik eta burgesia eta zapaltzaileen artean. Ez gaitu bereizten jatorrizko edo jaiotzeko tokiak, klase-interes ezberdinek eta Euskal Herria burutzen ari den burruka luzean barrikadaren zein aldetan kokatzen garenak baizik.

Urte askotan Gasteizko Gobernuaren aginduen menpean egon diren eta bere garaian EIKE-ren bidetik jo zuten ikastolek, aldaketa garrantzitsua egin dute. Erakundeek ez zietela alternatiba koherenterik eskaintzen eta haien morrontzako jokaerak bakar-bakarrik sinesgarritasuna galtzea eta zapuzketa zekarzkiela ikusirik, eta saila PSOE-ren eskuetan gelditzen zelarik, maniobratzeko eta mobilizatzeko ahalmen handiagoa emanez, Federazioek berebiziko garrantzia duen erabakia hartu zuen: autonomiaz eta ekimenez jokatzea. Oinarritzat gure alternatiba hartu dute eta burruka eta negoziaketaren ildoari eutsi diote.

- BIDE LUZE ETA ZAILA.

Funtsezko eztabaida ez da hasi oraindik. Prozesua luze eta konplexua izango da. PSOE-k eta PNV-k erakunde baskongado hutsal eta urriak dituzte Euskadiko irakaskuntzaren gatazka zailari irteera egoki eta duina eskaintzeko. Gai honetan borondate eta erabakikortasun politiko handia behar da baskongadetako PSOE-ren aldetik eta Gobernu zentralaren aldetik ere. Beraz, begien bistan dago, nahi dugun elkarketa lortzeko, ezinbesteko tresnatzat herriaren burruka lagundu eta bultzatu behar dugula, gure herriaren oraingo beharri zaien egokitzen zaien eskola-eredu duin bat oinarritzat harturik.

Elkartze-prozesu honek, bestalde, zerikusi handia izango du, ETA eta Estatuaren arteko negoziaketa politikoaren urrats guztiekin. Elkarren osagarri dira arlo biak. Euskadiren Berreraikuntzan aurrera egiteko, maila ezberdin bi dira, baina osagarriak eta lotuak, Euskal Eskola Publikoaren oinarrizko helburuetariko izan behar duen eskola-adineko haur guztien euskalduntzea bermatuko duen legeak, Madrilen jokabide politikoaren erabateko aldaketa inplikatzeko baitu. Konstituzioaren eraldaketa ez bada ere, guztiz interpretazio ezberdina ekarri behar du, honetan eta irakaslegoaren gizarte-lan statusa zehazteko eta ezartzeko ere.

Prozesua luzea izateak, ez gaitu desilusionatu edo etsitu behar; baizik eta, aitzitik, eztabaida eta burruka epe ertainerako lan-koordinadetan kokatzen lagundu behar gaitue, helburu eta metodologia egokiez.

2.2. Ezinbesteko baldintzak.

Elkartze-prozesu honi ematen diogun laguntza tinko eta sendoa ez da inolaz ere zuritan izenpetzea. Ez da erabateko laguntza, guztiz alderantziz baizik: gure lankidetzak izango dute hitzarmenean eta Euskal Eskola Publikoaren alde egindako adierazpenetan agertutakoa errespetatzen duten neurrian. **HERRI BATASUNA**rentzat, errespetatu eta bermatu behar diren ezinbesteko baldintzak funtsean hurrengoak dira:

- PROZESU IREKI ETA PARTIZIPATIBOA.

Gure Nazio-Eskolaren bidean Euskal Eskola Publiko berri hori sorteraziko duen ikastola eta eskola transferituen arteko elkartetan, zerikusia duten sektoreak asko eta oso ezberdinak dira. Heziketazko proiektu berean oso sentikortasun ezberdineko pertsonak eta guneak daude, eskola erabat euskalduntzeko hartu behar diren neurriei buruz animikoki urrunduta dauden jokabideak. Beraz, egoera hain heterogeneo honetan borondateak hurbiltzea, emango ditugun urrats guztietan izaera ireki eta partizipatiboa bermatuz lortuko da bakarrik.

Gaizkiulertze eta uzkurtasunak elkarriketa zabal eta zintzoaren bitartez gaudituko dira soilik. Proiektu berean eraginkortasunez hasieratik parte hartzea, sektorerik interesatuen gogoak biltzeko eta zalantzakor eta txepelok erakartzeko biderik zuzenena da. Aurreritzi faltsuak eta etiketa zaharkituak baztertzeko erarik egokiena, eztabaida argitzailea da.

Beren historiagatik, hizkuntz berreskurapenari buruzko jokaeragatik eta baita beren egoera juridikoarengatik bereizturik dauden heziketazko sare bien arteko elkarketa portu onera eramateko, ezinbestekoa da, biok erarik zuzenean prozesuan parte har dezaten, zerikusia dutenak ibilbidearen hasieratik protagonista oso senti daitezten eta, argi dago, zentzu honetan akats nabarmen eta onartezinak badaudela. Mekanismo egokiak artikulatu behar dira lehenbaitlehen, bada, eskola transferitu guztietan eta ikastoletan eztabaida zabal, serio eta sakon bati hasiera emateko, sindikatuek, kolektibo pedagogikoez, gurasoen elkarteek, federazioek, klaustroek eta interesaturik dauden kolektibo herrikoiek parte hartuz.

- EZTABAIDA IKUSPEGI OROKORRAZ BERMATZEA.

Desafioa hain zaila izanik, ezin dugu exijitu fase guztiak aldi berean bete daitezten. Gure ustez beharrezkoa da hartu beharreko neurriak eta eman beharreko urratsak jarraikakoak eta apurkakoak izatea.

Baina, aldi berean, oharterazi behar dugu badagoela arrisku bat, hots, Administrazioak, zuzenean inplikaturik gauden sektoreoi alternatiba orokor eta onargarria eskaintzeari dagokionean, partzial eta puntualetara eraman gaitzan. Eta eztabaida hauek, ikuspegi orokorraren ezean, eztabaida antzu eta etsigarrietarantz garamatzate.

Honetaz, HERRI BATASUNAK uste du, beharrezkoa eta positiboa dela lehen fase honetan ikastolei beharrezko laguntza ekonomikoa ematea bermatzea, hala nola bi hezkuntzazko sareei beren ihardunean eta funtzionamenduan autonomia eta eskuhartze zabalagoak bermatuko dituzten eskola-kudeaketarako era berriak proposatzea. HERRI BATASUNAREN eritziz, hitzarmenean aurrikusitako lehen fasea beharrezkoa eta positiboa da, baldin eta berehala nahi dugun eta bideratzen ari garen eskola-ereduan oinarrituriko prozesu argitzaile bati hasiera ematen bazaio. Bakarrik hori betetzen den heinean lagundu ahalko diogu.

- BEHAR DUGUN EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN EREDUA.

Hauxe da eztabaidan izan behar dugun gai nagusia. Hauxe da zain dugun bete-behar handia: nahi dugun eskola-eredua zehazki eta sakonki definitzea. An-

tolaketa eta kudeaketaren eredia itxuratzea eta eztabaidatzea, 14 urteetarako ikasle guztien euskalduntzea bermatzen duten oinarritzko baldintzak ezartzea; etorkizuneko Euskal Eskola Publiko horretan langileek izango duten status sozio-laborala konkretatzea, etab., etab.

HERRI BATASUNAREN ustez eskola guztiei eskaini behar zaie ahalbide hau lehenbaitlehen. Hainbat eta hainbat agintza jasoz hamar urte igaro eta gero, bada ordua zer-nolako eskola-mota proposatzen diguten esateko, nolako kudeaketa-era, euskalduntzearen maila, Madrilgo botere zentralerako autonomia edo menpekotasunaren maila, langileen etorkizuneko egoera, etab. Guztiz onartezina da, Gobernu Baskongadoak hain beharrezkoa den argiztapen hori garatzen ibil dadin. Hauxe da egiteko dagoen eztabaida nagusia. Hauxe izan behar da lehenbaitlehen hasi behar den prozesu argitzailearen gakoa. Gure Euskal Eskolaren etorkizunerako hain garrantzitsua eta berebizikoa den une honetan gure ekarpena eskaintzeko asmoz, HERRI BATASUNAK bere ESKOLA PUBLIKO EUSKALDUNAREN ereduaren hasi-masiak aurkezten ditu, ereduaren definizio-ardatzak funtsean guk hausnartu, sakondu eta proposatu nahi ditugun hiru atal hauetan mamitzen direlarik:

A.- Nola ulertzen dugun hezkuntzazko zentruen kudeaketa demokratikoa eta funtzionamendua.

B.- Zein den unibertsitaterik kanpoko gure hezkuntzazko sistemaren euskalduntze-maila; eskolaren betebeharrak gure gizartearen euskalduntze-prozesuan; egoera larri hau birbideratzeko berehala hartu beharreko erabateko neurriak, etab.

C.- Irakaskuntzako profesionarien oraingo status sozio-laborala; zein izango litzatekeen haien egoera juridikoa etorkizunean; bermatu beharreko gutxienezko eskubideak.

Ez dira hiru gai hauek nahi dugun eskola-eredua definitzen duten bakarrak, baina Euskal Eskola Publiko eta Euskaldunaren ezaugarriak agerterazteko eta definitzeko oinarritzko ardatzak direla uste dugu.

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

L.A.B.en ULEGOAK LOCALES DE L.A.B.

GIPUZKOA

BULEGO PROBINTZIALA	Paseo de Zorroaga, 7-entrep.	464733
IRUN	c/ Uranzu, 33-1° B	624714
ORERETA	San Sebastián, 6-1° A	514062
HERNANI	Nafarroa, 23 bajo	556717
LASARTE	Mayor, 37 bis	370997
ANDOAIN	Nueva, 46 bajo	594231
TOLOSA	Zumalakarregi, 1 bajo	673024
BEASAIN	Juan XXIII, 2 Entrep.	881445
LEGAZPIA	Aitzgorri, letra A-1°	730383
EIBAR	Bidebarrieta, 46-bajo	712199
ELGOIBAR	San Ignacio, 1 bajo	741028
ARRASATE	Plaza Iparragirre, 4-1°	797408
BERGARA	Mastzerreka, 6 bajo	
AZKOITIA	Kale Nagusia, 29-3° dcha.	814265

ARABA

BULEGO PROBINTZIALA		
GASTEIZ	c/ Gorbea, 2-1° C	224619
LAUDIO	Nerviñón, 2	6722714

BIZKAIA

BULEGO PROBINTZIALA		
BILBO	Astarioa, 6-4°	4249160
BASAURI	Marqués de Estella, 3-entrep.	4498121
GERNIKA	Iparragirre, 44 bajo	6853941
BARAKALDO	Aldapa, nº 22	4385029
ERANDIO	Plz. San Agustin, 6-entrep.	4670156
SONDIKA	Justo Agulia nº 5-1°	4533997
DURANGO	Intxarroundo, 2	6818509

NAFARROA

BULEGO PROBINTZIALA		
IRUÑEA	Nueva, 2-3°	221130
LIZARRA	Plaza Santiago	550833
ALTSASU	Auzokoa, 2-4° A	
BERA BIDASOA	Laguaia, 15-1°	
ETXARRI	Larrañeta, 22-2° D	570530